

Aretxabaleta,
1994eko ekainak 2

Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABAleta



Iñaki Iturri: Barriro etxean

- Andra Marirako kartel lehiaketa
- Kontu zaharrak
- Hurretik:
Antonio Guisado

3. Boteprontoan
Ezagutzen duzu Unai Proiektua?
4. Hamabostean behin
Elkarriren jaialdia.
5. Hamabostean behin
Andra Marietako kartel lehiaketa.
6. Hamabostean behin
Udako kirol iharduerak.
7. Hamabostean behin
Boleiboleko entrenatzaile ikastaroa.
10. Elkarrizketa
Iñaki Iturri.
13. Kirolak
Arlutz saskibaloï txapelketa.
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik
Antonio Guisado
19. Agenda eta Aretxazoka

IÑAKI ITURRIRI

*Presondegiluna
a zer nolakoa,
bakardadean pasaz
denbora nahikoa.
Orain izango duzu
zuk esatekoa
etxea oso dala
estimatzekoa.*

*Zabaldututenean
ate maratila,
inguruan hor duzu
senitarte pila,
orain jasango duzu
egokitze zaila,
ezin menderatuaz
lanaren gurpila.*

Jon Iñaki Izarzelai

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoru **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Ezagutzen duzu Unai Proiektua?



Jasone Gorroño
(Langilea)

Bai, ezagutzen dut, eta gainera jakineko proiektu bati laguntza ematea egokia iruditzen zait.



Jose Galdos
(Jubilatua)

Ezagutzen dut. Eta herriak gehiago lagundu behar zuela uste dut. Gu ez gara hain txarto bizi, eta ezer ez dutenei laguntzeko ahalegin handiagoa egin beharko genuke.



Amaia Alberdi
(Etxekoandrea)

Bai, ezagutzen dut, eta laguntza guztiok eman beharko genuke-ela uste dut. Beste gauza batzutarako laguntza ematen dugu eta honetarako ere gehiago eman beharko genuke.

KARTAK

H.H.I.ko ikastaroen matrikula

Helduen Heziketa Iraunkorreko 94-95 ikasturteko matrikula epea ireki da.

Aurten, Aretxabaletan ematen diren mailak zabaldu egingo dira, beraz, interesatuta zaudeten guztiok informa zaitezte 791000 telefonoan edo hurbil zaitezte Udaletxera eta galde egizue Enplegu Teknikariagatik.

Beti ere, gogora ezazue ikastaro hauek dohanekoak direla eta alfabetizazio mailatik hasi eta eskola graduatua ateratzerainoko mailak eskaintzan direla.

***Bakarrik 1.500 pezeta-
ren ordainean urtean...***

Alfabetatzeko eta eskola graduatua ateratzeko aukera paregabea duzue. Orain zuek animatzea besterik ez da falta. Gaztetan egin ez duzuen egiteko garaiz zaudete. Etorri beldur barik zuen zain egongo gara.

Enplegu Teknikaria



**Maiatzaren 20an, eguako-
txean, Elkarriren jaialdia
egon zen Kirol-Etxean. 300**
pertsonek inguru elkartu ziren
eta giro polita izan zen nagusi.
Gainera, bertso saioa grabatzera
Euskal Telebistako kamerak
etorri ziren, beraz *Hitzetik
Hortzera* bertso saioan atxabal-
tako bertsolariek Atxabaltan
egin zuten lana ikusteko aukera
izango dugu.

Oharra:

Ohar honen bidez, Aretxagazetak bazkide kanpaina barria hasi duela adierazi gura du.

Aurreko Aretxagazetako zenbakian konturatu zineten moduan, joku barri bat dago. Joku honek erregalu onak dauzka. Joku hau, gainera, **Bazkideentzako bakarrik** izango da.

Aurreko zenbakian ere hau adierazi genuen, baina hala eta guztiz bazkide ez diren askok parte hartu nahi izan dute jokuan. Badakizue, joku barrian parte hartu gura baduzu, **ARETXAGAZETAKO bazkide izan behar duzu.**

Aretxagazetako bazkide egiteko, 1.500 pezeta ordaindu behar dira urtean. Baina 1.500 pezeta-
ren truke, **Aretxagazeta etxean** jasoko duzu, **jokuan parte hartzeko** aukera izango duzu, **euskarari laguntza ederra** emango diozu eta gainera ARETXAGAZETA KULTUR ELKAR-
TEARI kolaborazio handia eskainiko diozu.

MZ MASAILARIAK


MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



**IBARRA
ESTANKOA**

**Tabakoa eta
ikasmateriala**

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



lazko kartel lehiaketaren irabazlea

Andra Mari-rako kartel lehiaketa

Atxabaltako Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko, Udaleko Kultura Batzordeak Kartel lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa honetan Aretxabaletako edozein pertsonak har dezake parte.

Teknika libreza izango da, eta kartelek 50 X 70 zmk. neurria izango dute.

Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: Andra Mari jaiak 94 / Abuztuak 14, 15, 16 eta 17 Aretxabaleta.

Kartelarekin batera, sobre itxi

batean, egilearen datuak adierazi behar dira.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da eta Aretxabaletako Kultur Etxera bialdu beharko dira.

Irabazleendako sariak honako hauek izango dira: 1go saria 25.000 pta, 2. saria 10.000 pta eta 3. na 5.000pta.

Epaimahiak erabakia uztailaren 3an emango du.


Ondoren, lehiaketako kartel guztiekin erakusketa bat egingo da.

Zarai Mendi taldeak diapositiba emanaldia emango du ekainaren 3an eta 17an, Zaraia zineman arratsaldeko 7etan. Lehenengo emanaldiaren gaia "Choo You" izango da eta bigarrenena, berriz, "Bolivia". Debalde izango da eta Kutxa Fundazioak babestua. Aukera ezin hobea izango dugu, bi egunetan zehar, mendiaz gosatzeko.

Urtero moduan, aurt en ere "Hiru Haundiak" egiteko aukera izango dugu ekainaren 24 eta 25ean. Gorbea, Anboto eta Aizkorri, egun batean igo beharko dira. Beraz parte hartu gura dutenek izena Murruxikoko lokalean eman dezakete. Anima zaitzete, bakoitza bere pausoa egin ezker, ez da hain gatxa.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

Martín
RECUPERIA • RECUPERIA

Mitarte, 16
☎ 79 01 72



lazko, pintura lehiaketaren irabazle bat

8. pintura lehiaketa

Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak datorren uztailaren 3rako Pintura lehiaketa antolatu du haur eta gaztetxoentzat.

Lehiaketa horretan edonork parte hartu dezake. "Aretxabaleta eta bere ingurua" izango da gaia. Teknika librekoa izango da eta egin behar diren lanak goizeko 9etatik 11etara bitartean sinatuko dira.

8. pintura lehiaketa honetan epaimahaia artista ezagunak osatuta egongo da, eta hauek hartutako erabakia arratsaldeko 7etan emango da jakitera. Sari banake-

ta Udaletxeko erakustokian izango da.

Irabazleendako ezarritako sariak honako hauek izango dira: 1go saria 50.000 pta eta trofeoa, 2. saria 30.000 pta eta 3. saria 20.000 pta.

Gaztetxoendako sari bereziak egongo dira, besteak beste oliomargoen kutxatila...

Honetaz gain atxabaltarrek ere euren opariak edukiko dituzte.

Beraz badakizue, margotzea gustatzen zaizuenei uztailaren 3an daukazue aukera.


Udako kirol iharduerak

Aurten ere, Aretxabaletako Udal Kultura Batzordeak uda garairako zenbait kirol ekintza antolatu ditu: piraguismoa, eskalada, espeleologia, mountain bike, ping-pong eta squash txapelketa, igeriketa, xakea, badmintona eta tenisa izango ditugu aukeran.

Uztailean kirol hauek praktikatzeko aukera izango dugu; Badmintona, tenisa eta igeriketa Kirol-etxean egingo dira. Piraguismoa, berriz, Urkuluko urtegian, espeleologia Eginon, mountain-bikea inguruko mendietan eta eskalada Kirol Etxeko rokodromoan eta Erañan. Bestalde ping-pong eta squash txapelketak Kirol Etxean bertan jokatuko dira. Ordu-tegiari dagokionez, kirol bakoitzak bere ordutegia dauka, batzuk goizez nahiz arratsaldez burutuko diren neurrian, beste batzuk goizez bakarrik izango dira.

Hala ere, informazio gehiago gura izan ezker, Kultur etxera joan zaitzekete edo 790105 telefono zenbakira dei egin.

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak**

Aretxabaleako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

Boleiboleko entrenatzaile ikastaroa

Boleibolak azken urteotan ezagutu duen gorakada dela eta, Deba Garaiko Udal Kirol zerbitzuak entrenatzaile izateko ikastaroa jarriko du martxan. Ekainaren 11-12an eta 18-19an, Arrasateko kiroldegian burutuko da ikastaroa. Bertan parte hartuko dutenek lehenengo mailako boleiboleko entrenatzaile titulua lortuko dute, hau da, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak entrenatzeko aukera. Titulazio hori Gipuzkoako Boleiboleko Fede-

rakundeak emango du. Ordutegiari dagokionez, zapatuetan 9etatik 2ak arte eta arratsaldetan 4etatik 8ak arte. Eta domeketan 9etatik ordu bata arte. Lehen aipatu dugun bezala, ekainaren bi asteburutan izango da.

Bestalde ikastaroan parte hartu ahal izateko baldintza bakarra 17 urte baino gehiago izatea da, eta gogoak edukitzea. Izena ematean 8.000 pta ordaindu beharko dira. Hala ere, Deba Garaiko edozein polikiroldegiko bazkide di-

renentzat 6000pta besterik ez da izango kuota. Ikastaroa aurrera ateratzeko 20 pertsona behar izango dira gutxienez.

Ikastaroan jorratuko diren arloak honako hauek izango dira: teknika, taktika, miniboleibola, arautegia, talde zuzendaritza, plangintza eta prestakuntza fisikoa. Lehenengo hiru gaiak euskeran hutsean izango dira.

Izena emateko, Kirol Etxera jo dezakezue edo Arrasateko Musakolako kiroldegira.



Demetrio Iriarte Mujikak omenaldi hunkigarria jaso zuen Oñatin. Bera Atxabaltan bizi bada ere, izatez oñatiarra dugu. Omenaldia Demetriori Euskal Herriko Txitulari elkarteak egin dio, eta urte askotan zehar txistuaren munduan egin duen lana goraiatzeko Urrezko Domina oparitu zioten. Egun ahaztezina Demetrioentzat eta merezitako omenaldia gainera. Zorionak Demetrio, Aretxagazeta elkartearen partez.

SAGASTA

ELEKTRIZATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10

RKLU


**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A**

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55



Unai proiektuko 4. txostena

Inaxio Galdos, jesuita atxabaltarrak, Unai proiektuko txostena bidali berri du. Egon diren aurrerapenak Atxabaltako herriak ezagutu ditzan, ondorengo lerroetan jakitera emango ditugu:

- Aurrikusitako 323 hektareetatik 200 berdindu dira.

- Aurrikusitako 11 ur-putzetatik 10 bukatu dira eta beste 5 berri ereikitzen ari dira.

- Aurrikusitako 16 eskolaurretatik 12 finantziazten ari dira.

- 1.093.226 pta balioko hazi eta ongariak eskuratu dira.

- Lan guzti hauetarako 8.320.494 pta gastatu dira, proiektu guztirako aurrikusitako

16.060.000 ptatik

- Bitartean, apirilaren 30erako 13.200.000 pta bildu dute. Kopuru honetan garrantzia berezia du Atxabaltako eta Arrasateko Udalek eskeini dituzte diru laguntzak: 5.550.000 pta.

Dena dela, Atxabaltako hirugarren munduko taldean dabil tzanek, zera azpimarratu digute, "gure uzte edo pribatze esfortzu txiki batekin beste zenbait gizon-emakumeri egin diezaiokegun on handia egiaztatzea, kontsumismoaz eta beste gauzez harrapatuak gauden arren, besteei laguntzeko eta haien bizitzak aldatzeko gai ere bagarela ikustea".

□ Argazkiak hobetzeko ikastaroa egongo da Eskoriatzan. Maiatzaren 31n hasiko da eta 4 aste iraungo du. Astearte eta ostegunetan emango da 6,30etatik 8,30etara.

Bertan, erretratua, flasha, natura, mugimendua eta kirola, ... teknikak ikasteko aukera izango dute, bertara inguratzen diren denek.

Izena Eskoriatzako Kultur Etxean eman behar da, eta matrikulak 1.000 pta balio du. Gainera, plazak mugatuak izango dira.

□ Ekainaren 18an "Euskararen eguna" ospatuko da, Loramendi Kultur Elkarteak antolatuta. Hurrengo Aretxagazetako zenbakian, egun horretako egitaraua argitaratuko dugu.

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABAETA

*ANDONI
ALTUBE*

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36

☎ 79 10 60

**ARETXABAETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABAETA



Udaletxeko Ganbaran, Batzar Orokorrean

Loramendi kultur Elkartearen Batzar Orokorra

Joan zen eguenean Loramendi Kultur Elkarteak batzar Orokorra egin zuen.

Bertan honako gai zerrenda hau aztertu zuten:

- Akta onartuko duen Batzordearen izendapena.

- Behin-behineko Batzorde Eragilearen gozotikoak.

- 1994rako plangintzaren aurrezpena.

- Aurrekontua.

- Elkartearen eraketa.

- Batzorde Eragilearen aukeraketa. Puntu honi dagokionez, bazkide guztiei hiru hautagai izendatzeko eskaria bidali zitzairen. Lehenengo hautaketa honetan zerrenda luze bat atera zen. Ondoren Batzorde eragileak, bakoitzak jasotako botu kopurua araberaren eta hautagaien oniri-

tziz, hamar hautagai aukeratu zituen. Azkenean barriro bazkideek hamar hautagai hautetatik bost aukeratu behar izan zituzten eta batzar Orokorrean hauek izan ziren aukeratuak: Patxi Lazkano, Eukeni Egurbide, Jon Sarasua, Amaia Zugazagasti eta Jon Ander Loidi.

- Azkenengo puntuan galdera-erantzunak zeuden.

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

... **ARETXAGAZETA**
etxean jasotzez gain ...

Iñaki Iturri, barriz ere gure artean



Iñaki iturriri lere zain, Gatzagan

ADINA:	36 urte.
FAMILIA:	Emaztea: Arantxa Lizarralde. Bi seme- alaba: Iratzeder (15 urte) eta Mikel (8 urte)
PRESOALDIA:	Carabanchelen: urte bete eta hilabete bat. Ocañan: 3 urte eta 7 hilabete.
HARRAPAKETA:	Bere emaztearekin batera, polizia gogizko ordu batetan harrapatu zituzten etxean lo zeundela.
ESPETXERATZEA:	Lehen eguna Donostiako Antiguoko kartzelan pasa ondoren, hurrengo laurak Madrilan egin zituzten Seguritasunerako Zuzendaritza Orokorrean (D.G.S.). Audientzian epaileak aitortpena hartu eta Iñaki Carabanchelera zeramaten bitartean, Arantxa libre utzi zuten.
EPAIKETA:	Epaia: 7 urteko kartzela-zigorra eta 500.000 pta-ko indemnizazioa. Epe horretan ezin du kargu publikorik izan ezta hauteskondeetan botoa eman ere. Legeak dioenez, sententziaren 3/4 betetzean libre utzi dute.

Euskal Herritik kanpo lau urte t'erdi luze egon ondoren, duela egun batzuk libre utzi dute Atxabaltan bizi den Iñaki Iturri arrasatearra. Kontuak kontu, hona hemen berarekin izandako elkarrizketa.



"Orain dela hilabete jakin nuen libre gelditzen nintzela"

- Espero zenuen herriak egin zizun ongi etorria?

- Barruan nengoela, bisitatzera etortzen zirenek ongi etorria egiteko asmoa zegoela komentatzen zidaten, baina eguna heldu zenean herriarengandik ikusi nuen jarrera eta horrenbeste jendea ez ikustea ez nuen espero.

- Noiz jakin zenuen libre gelditu behar zinela?

- Orain dela hilabete bat. Noiz irten behar nuen jakiteko instantzia bat bidali nien kartzelako zuzendariari eta eurek esan zidaten 21ean izango zela, gainera epai-leak ere onartua zuela jakinarazi zidaten.

- Kartzelako zeldetan, hau da, txaboloetan, zenbat lagun bizi izaten dira?

- Txaboloa bi lagunentzat izaten da, baina gure kasuan banaka egoten ginen. Honen zergatia ordu asko bertan egoten ginelako da, eguneko 22 ordu txaboloetatik irten barik egoten ginen. Hala ere, nire txaboloan preso arrunt bat sartu gura izan zuten baina ez nuen utzi. Ondorioz, 7 eguneko

zigorra bota zidaten aislamentuetan.

- Zer dela eta jartzen dituzte zigorrak?

- Edozein tontokeriagatik jasotzen da zigorra: erantzun txar bategatik edo txaboloa desordenatua dagoelako. Edozer aitzaki nahikoa da zigortua izateko.

- Zer dira aislamentuak?

- Aislamentua beste departamendu txiki bat da. Lagun baten dako bakarrik izaten da. Bertan zaudenean, patiora jaisteko ordu bat besterik ez duzu eta hor ere bakar-bakarrik zaude, inolako kontaktu barik. Horrenbeste ordu bakarrik egotea oso gogorra izaten da.

- Omenaldia egin zizutenean, zer izan zen une horretan buruak eta bihotzak esan zizutena?

- Ez dago gauza konkreturik, gauza denak batzen zaizkizu. Kartzelatik irten nintzenean lehenengo flaxa kalea ikustean izan nuen. Izan ere, 3 urte eta 7 hilabete kalea ikusi barik neramatzan. Gero herrira etorri, eta batetik egon diren aldaketak ikusi eta bestetik horrenbeste jende, sentsazio berezia izan nuen nere barrenean. Laburbilduz, pozikaragarria eta era berean tristura, oraindik ere integratzeko, barruko ohiturak, ordutegiak, ... ahaztu beharko ditudalako.

- Eta dagoeneko, oinak lur gainean jarri dituzu?

- Oraindik ez, asmoa hori da, zeren badakit oinak lurrian lehen bait lehen jartzen badituzte nere onerako izango dela. Hala ere, kartzelan izandako dinamika apurtzen dudanean, benetako integrazioa lortzean, orduan jarriko dituzte oinak lur gainean.

- Kartzelan izan zenituen

"Horrenbeste ordu bakarrik egotea oso gogorra izaten da"

une onenak eta txarrenak?

- Kartzelan ohitura da preso batek bere urtebetetzea egiten duenean tarta edo pastelaz ospatzea, beraz egun horietan denak elkartzten ginen eta hauek izaten ziren une onenak. Txarrenak, barriz, espetxe-aldaketak egite-rakoan, egoten ziren jipoiak eta poliziaekin beti harreman zuzena zenuenez sortzen zen tentsioa.

• Zein da kartzelan egun bateko ordu banaketa?

- Lehen preso-kontakteta goizeko 7.30etan izaten zen, 8.30etan atea zabaltzen zizkiguten eta patiora joaten ginen, 11etan berriro txabolara, 1.30etan bazkaltzeko jantokira joaten ginen, 2etan txabolara afaltzeko ordua heldu arte, 7.30ak inguruan afaldu eta ostean txabolara igoten ginen hurrengo eguna arte. Bide batez, esan behar dut 5 preso-kontakteta egiten zituztela egunean zehar. Lehena 7.30etan, 11etan bestea patioan, 3etan, 6.30etan eta gaueko 10etan azkena.

- Horrenbeste ordu baka-rrik txaboloan zertara dedikatzen zenuen?

- Musika, telebista eta irrati aparailuak genituen. Beraz, eguneko ordu dexente horiek entzuzten eta ikusten igarotzen genuen. Honez gain, aldizkari, egunkari eta liburua asko irakurtzen genituen, idatzi ere bai eta bertako lanak egin: erropa garbitu, txaboloa txukundu.

• Zer da barruan zaudela gehien eskertzen duzuna?

- Lagun eta ezagunen bisitak. Nik bisita asko jaso nituen, zapa-tuetan bisita eguna zen eta beti izaten nuen norbait.

• Kartzelan egon izanak betiko markatuko du Iturri?

- Bai jakina, hango baldintzak oso gogorrak dira. Dena dela, esan behar dut Ocañako kartze-

lako baldintzak gogorrak izan arren, beste kartzelakoekin konpara ezkerro lasaiagoak dire-la, baina askatasuna kentzeak asko markatzen du.

• Kartzelan izandako une kritikoena?

- Carabanchelen 3 hilabete neramatzala, 3. galerian sartu ninduten beste preso sozial batekin. Preso honek paranoiak zituen, ez baitzegoen burutik oso ondo, gainera sikiatrikoan egondakoa zen. Horrela, bada, lehen egunean bere paranoiekin hasi zen, bigarren egunean funtzionariari ez zego-ela ondo esan zion, baina horrek ez zion jaramonik egin eta 4. egunean lo nengoela zarata batzuk esnatu ninduten, eta hara non ikusten dudana tipoa lehioetik izara batekin zintzilik. Segituan jaiki nintzen, izara moztu eta gizona altxatu nuen. Benetako esperientzia gogorra izan zen niretzat, egoera hori bizi arte pentsaezina.


• Boteprotoan, zeintzuk dira herrian ikusi dituzun desberdintasunak?

- Batetik Industrialdea ikusi barik neukan, bestetik jende gaztea, 18-19 urte bitartekoa, ez dut ezagutzen. Bestela herriak lehen-go itxura du aldaketa batzurekin.

• Zelabait asentatzen zarenean, zer da egin behar duzun lehen gauza?

- Mendira joan. Ez dakit mendiak duen zabaltasuna askatasunaren adierazgarri delako edo zergatik, baina mendira joateko irrikan nago, Kurtzebarri hain zuzen.

"Askatasuna kentzeak asko markatzen du"



Hiru ihardunaldi bakarrik falta dira txapelketa hau bukatzeko. Bi talde daude puntutan sailkapenaren goikaldean (Fatxus eta Esguince). Hurrengo ihardunalditik aurrera, partidu gehienak erabakikorak izango dira, eta beraz joko ikusgarriaz gozatzeko aukera izango duzue. Aldi berean, antolatzaileak adierzi digutenez, hasarre dabiltzala, arbitratzen inor ez delako agertzen eta gehienetan eurak arbitratu behar dutelako.



Arlutz saskibaloia Txapelketa

Sailkapena

FATXUS AND THE OTHERS	9 puntu
ESGUINCE	9 puntu
LLENO POR FAVOR	8 puntu
AKER	6 puntu
SALVA NOT DEAD	6 puntu
D.D.K	6 puntu
LAS BERRUGAS DE ...	4 puntu
HANDRY & FLDY	4 puntu
LEXE GURELEFA	4 puntu

Emaitzak

5. IHARDUNALDIA


D.D.K 77 - Las Berrugas de... 63
 Letxe Gurelefa 14 - Fatxus 70
 Lleno por favor 39 - Salva not dead 28
 Esguince 80 - Aker 56

6. Ihardunaldia

Las Berrugas de... - Aker
 Fatxus and the others - Lleno por favor
 Salva not dead - Lexe Gurelefa
 D.D.K - Handry & Flody

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Kirola egiteko aukera paregabea izango dugu domekan

Eskoriatza-Arrasate krossa

Eskoriatza-Arrasate kros-lasterketa jokatu da domekan. Aurtengo lasterketak II. edizioa beteko du, iaz lehen aldiz antolatu zuen Arrasateko Atletiko taldeak, Eskoriatzatik Arrasateraino doan krossa. Erantzun ona izan zuela ikusita, aurtengo esperientziarekin jarraitzeko bigarren krossa antolatu du. Krossan partehartzeko baldintza bakarra 16 urteko gorakoa izatea da eta 7.150 metro korritzeko gogoia. Lasterketa goizeko 12.30etan hasiko da Eskoriatzako plazan, hemendik Atxabalta zeharkatu eta helmuga

Arrasateko plazan egongo da. Bide batez, esan beharra dago partehartzailerik bakoitzari kamiseta bat oparituko zaiola. Bestalde, mailei dagokienez, senior, junior eta beteranok partehartzeko aukera izango dute.

Era berean gogoratuko dizuegu, mailak sailkatzeko antolatzaileek nortasun agiria eskatuko dutela, beraz, ez ahaztu nortasun agiria etxean. Horrela bada, partehartu gura dutenek lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago eman beharko dute izena, horretarako jarriko diren mahaietan.

Preferente mailako

UDA taldeak, zapatuan jokatu zuen denboraldiko azken neurketa Trintxerpe taldearen kontra, eta azken emaitza 0-3koa izan zen gure taldearen alde. Beraz, UDAk 93-94 denboraldia sailkapen nagusiko 7. tokian bukatu du 41 puntu eta 3 positiborekin. Guztira 38 norgehiagoko jokatu ditu denboraldian zehar, horietatik 14 irabazi ditu, 13 berdindu eta 11 galdu. Golei dagokienez, UDA taldeak 45 gol sartu ditu eta 36 jaso. Esanak esan, eta datu hauek kontutan izanda, oso denboraldi irregularra egin duela esan genezake, nahiz eta azken neurkete-tan garaipenak nagusitu.

Bigarren mailako txirindulari kadeteen lasterketa

izan genuen domekan. Guztira 106 txirindularik hartu zuten parte. Txapelduna Jon del Rio Oriako taldekoa izan zen, 1'25"40" denbora eginez. 2. postuan Mikel Roldan Dorletako Ama taldeko atxabaltarra sailkatu zen, 3. Jabier Sedano, hau ere, Dorletako Ama taldekoa eta 4. postuan ostera, Igor Maiz. Mendiko sarriaz, Jabier Sedano jabetu zen.


LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
 ☎ 79 29 26
 ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
 ARETXABALETA



Goikaldean: Javier Errasti, Nazario Errasti, Juan L. Errasti, Jesus Larrañaga, Ramon Antxia.

Behelaldean: Joxe Altube, Jesus M. Antxia, Jualian Barandiaran, Juan L. Antxia, Eduardo Altube, Patxi Zubizarreta.

Erdikaldean: Javier Iturbe, Jose M. Izagirre, Santi Uribesalgo, Demetrio Iriarte, Jose Lizarralde, Joakin Lizarralde, Manuel Arkauz.

Alboko mutikotxoak: Luis Agirre eta Luis M. Iturbe

A

urreko astean ez genuen aipatu Demetrio Iriartek, Atxabaltan burutu-tako beste lan garrantzitsu bat, Dantzari taldea sortzea, hain zuzen ere.

Kultura (folklore) zen orduko adierazpen politiko bakarra. Eta hor ekin zen Demetrio; gazteekin hitzegin, koadrila ezberdinetako jendea bildu eta baita lortu ere talde polit bat eratzea.

Lehengo Aretxagazetan argazki

bera agertu zen, baina partaideen izenak falta zirenez pixkat heren gelditu zen.

Argazkian atzekaldean kartel batzu agertzen dira eta bertan "Franco" izena eta garaiko esaldi eta proklamak ere.

Argazkia 1946ko abuztuaren 15a, Andra Mari egunean atera zuten lehengo Udaletxe aurrean.

A. ANTZIA

ZARAIA
TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

... euskarari laguntza ederra emango diozu eta ...

Lora barriak mendian



J.J. Aretxaga

Loramendi Elkarateak egin du bere lehenengo Batzar Nagusia. Loramendi Ikastola eta Beinke elkartearen azken pausoa izan da. Batzarrean lehenengo 'direktiba' formala osatu da. Batzarrean aukeratu zirenak hauek dira: **Eukeni Egurbide**, **Patxi Lazkano**, **Jon Sarasua**, **Amaia Zugazagasti** eta **Jon Ander Loidi 'Billi'**. Zuzendaritza taldea osatzeko, Loramendi Elkarateak dituen lan-taldeetatik ordezkari bana joan da. Kultur taldetik, **Leire Gorostiza**. Sentsibilizazio taldetik, **Josu Urkia**. Berri-Zahar euskaldunberrien taldetik **Rosa Del Aguila**. Tril emakume taldetik, **Mari Tere ...**. Umeen taldetik, **Miren Arenaza**. Izango dute lana esku artean Aretxabaletan euskara aurrera atarateko. Momentuz 338 bazkide ditu Loramendik. Dezente da,

baina euskararen aldeko lagun gehiago daude Atxabaltan oraindio bazkide egin barik.

Herriko bertsolariak aipatzen direnean beti batzuk etorten zaizkigu burura, baina badira gehiago eta onak. **Amaia Agiriano** gazteak bolada ederra dauka. Aldizkari honetan esan genuen Oñatin Sariketa irabazi zuela. Ba orain Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan finalera pasatu da. Datu bat: final horretako nagusien mailan 8tik 5 neskak izan ziren. Bat, Maialen Lujanbio ezaguna eta bestea, aipatu dugun atxabaltarra.

Ibarra barria izango dugu laster. Hasi dira futbol-zelai barriko obrak. Hainbeste obra! Gero krisia dagoela eta kontuak. Lehen hala zegoena, orain hola jarri. Hori aurrerapena ei da. En fin... Arrazoiren bat egongo da igual. Dena dela, bere historiatxo bete du Ibarra zaharrak. Zapatuan jokatu zen azken partidua, eta, galdu. Ia barriarekin hobeto hasten diren.

Roldan, baina **Mikel**, Mikel Roldan, Aretxabaletan jokatu zen bigarren mailako txirindulari afizionatuen lasterketan bigarren geratu zen.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA



Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Zazpigain liburudendan: liburuak, fotokopiak, karpetak...

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO
DUTE JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..



▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

Arantxa Iza

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **OHIANA AREJOLALEIBA**. Bazkide -zenbakia: 214.

Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna:
Izen-abizenak:
Helbidea:
Tfnoa:



Izena: Antonio Guisado Horrillo.

Ofizioa: Tabernaria.

Afizioa: Kirola.

Misioa: Egunen batean, neurea den negozio bat eukitzea, hobeto bizitzeko.

1.- Zein da zure gustoko kirola?

- Futbola.

2.- Athetia edo Erreala?

- Erreala.

3.- Karameluak gustetan zaizkizu?

- Bai, nahiko gainera. Marubi eta limoizkoak batez ere.

4.- Txorizua edo buzkan-tza?

- Txorizua.

5.- Txikiteoan edo egunkaria irakurtzea?

- Egunkaria irakurtzea.

6.- Udaberriak zer dauka ederra?

- Jendea oso aldatua ikusten dut eta ematen duen alaitasuna.

7.- Garagardoa edo kopa bat?

- Kopa bat.

8.- Egin duzun juergarik onena?

- Kinttotan.

9.- Pijamaz edo barik?

- Pijamaz.

10.- Krisia igartzen da tabernan?

- Bai, nahiko. Ez jendeak edari gutxiago edo merkeagoak eskatzen dituelako, baizik eta giroan igartzen da.

11.- Zelan ikusten duzu ta-

bernak ixteko dagoen ordutegia?

- Dagoen jendea eta krisia ikusita, uste dut ordutegia ego-kia dela.

12.- Emakume ideala?

- Daukadana.

13.- Zure birtute bat?

- Gizon arrunta naizela.

14.- Akats bat?

- Momentuan ez zait bat ere bururutzen.

15.- Atxabaltako alkate izango bazina, zer aldatu edo egingo zenuke?

- Lehenengo gauza herriko jaien egunak aldatuko nituzke.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

AITZIBER

NIÑOS



Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

2

EGUENA

- Berri Zahar taldeak antolatuta zinean Zaraia zineman, "Maitasuna offean" filmea.

5

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Aretxabaletako Inguuruak ezagutzen.**

- Murrukixo Mendi Elkar-tearen urteera: **Aluitz-era.**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Elgoibar - Deba -**

Ondarrua - Deba - Aretxabaleta. (100 Km)

- Goizeko 12,30etan Eskoriatza - Arrasate II. Kross Herrikoia.

7

MARTIZENA

- Arratsaldeko 6,30etan, Udaletxeko Ganbaran, **Loramendi Kultur Elkartean eskutik "ELIKADURA eta OSASUNA"** ari buruzko hitzaldia. Hizlaria, Itziar Larrañaga izango da.

12

DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Aretxabaletako inguruak ezagutzera. II. Atala.**

- Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Gaztetxoeren urteera.**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Bergara - Deskarga - Zumarraga - Beasain - Zumarraga - Bergara - Aretxabaleta.** (100 Km)

ARETXAZOKA

Lana

- ✓ Zure aulkia hondatu baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

- ✓ OHoko eta 1en eta 2. Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

- ✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

Lana

- ✓ Edozein motatako, lan, txosten, agiri eta abar ordenagailuz pasatzen dugu. Interesatuak deitu 79 12 49 zenbakira eta Agurtzanez galdetu.

- ✓ Irakasle tituladunak klase partikularrak ematen ditu O.H.Oko 1. mailatik 8.arte. Tfnoa: 77 10 72

Salerosketak

- ✓ Fiesta 1.6 Diesel-a salgai. Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.

- ✓ Mini-Conver karabana salgai. Egoera onean. Tfnoa: 79 88 83.

- ✓ Ford Escort-a salgai. Prezio interesgarria. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.

*... atxabaltarron aldizka-
ria kalean ikusi ahal iza-
teko ezinbesteko kolabo-
razioa eskainiko duzu.
Euskeraren onerako egin
zaitez bazkide.*

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Elkartea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila



IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994-95 ikasurterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela.

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialita-
teetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari
begira:

- Haur hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- Hezkuntza musikala

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)